

Desde Madrid al Roncal halló el muerto un camino cubierto de flores.

Yo quiero ofrecer hoy al gran cantante en su séptimo aniversario un nuevo *bouquet* de luto.

Y para formarlo, elijo la siempreviva, la flor «perpetua» que infunde respeto, porque no toma parte en las alegrías de las plantas agrestes, la flor sin aroma que nos dice que no debemos confundir la tristeza con la melancolía; porque la primera está llena de pesares, y la segunda de encantos; la flor del alma, la flor simbólica que San Agustín contemplaba con arrobamiento extático, al exclamar: *Mors viva*.

ENRIQUE SEPÚLVEDA.

## ARDOA ETA URA

Ardoari gizonak  
bota zion ura,  
ez igotzea gatik  
zumo burura;  
eta ontaz ardoa  
nola baitzan erre,  
esan zion urari  
jarririk aserre,  
¿zein aiz i nere tripan  
orrela sartzeko?  
¿zein nik, daukatan malla  
goituban jartzeko?  
ik ez dek kolorerik  
ez ere indarririk,  
eta gusto on gozo  
nerea ¿non dek ik?  
irten ari kanpora  
ua emendikan,

ez diat nik zañetan  
ire bearrikan;  
neronek diat iñork  
ez ainbeste indar,  
gizonik gogorrena  
jartzen diat dar-dar;  
nik diat jartzen triste  
daguana kantari,  
errena nerekin dek  
gertatzen dantzari;  
ni eratez aspertzen  
ez dek bein gizona,  
orretan ezagun dek  
naizela chit ona;  
eta izanikan i  
berriz orren utsa,  
¿uste dek bietala  
nik ire laguntza?

eta oek aitzeaz  
 sentiturik lotsa,  
 negarrez gelditu zan  
 uraren biotza.  
 Bañan allegatu zan  
 denbora berriya,  
 zeñen sentitu zuten  
 lurak egárriya,  
 eta ikusi ziran  
 mastiyak auldutzen,  
 zañetan zekaizkiten  
 indarrak galdutzen,  
 eta penaturikan  
 erreguz, zerura,  
 jarri ziran guziyak  
 emateko ura;  
 bada ez jaikitzekez  
 denbora urrean,  
 choil igartuta denak  
 ziralala lurrean;  
 bañan erregu ayek

ez aiturik goyak,  
 etziran lertzen ura  
 zeukaten odoiyak;  
 eta artaz pozturik  
 biotz urarena,  
 esan zuen ni ere  
 naiz Jainkoarena,  
 kontatu banau ere  
 ardoak ni utszat,  
 ardogayak artuko  
 ninduke beretzat.

. . . . .

Jaunak egiñak gera  
 aundi chikik denak,  
 bear degunak lagun  
 izan besterenak;  
 mundu ontan guziok  
 gerade errenak,  
 eta gorde ditzagun  
 falta elkarrenak.

---

## ASTOA

---

Nekerik gabe bizi  
 zalarikan lasa,  
 janaz noiz nai artoa  
 eta noiz nai aza,  
 buruba zibelako  
 oso kalabaza  
 ara zer pensamentu  
 oi zituben pasa.

Esaten zuben: ongi  
 naizelarik bizi,  
 beti naiz serbitzari  
 iñoiz ez nagusi;  
 alaz ere astoa  
 izate ta guzi,  
 nai nuke nere mende  
 beste nik ikusi.